

BIODIBERTSITATEA



Gizakiak hainbat espezieren bizitza arriskuan jartzen duen garaian gaude. Hala ere, gogoan izan behar dugu gure planetako naturaren aberastasunak gizakioi mesede handiak egin diezazkigukeela; beraz, begirunez jokatu behar dugu horren aurrean.

1- Biodibertsitatea? Ziur honez gero aspertuta zaudela hitz hori entzuten. Baina agian, ez dakizu oso ondo norbaitek hortaz hitz egiten duenean zeri buruz ari den. Ondorengo aukeretako bat hautatu bere esanahia azaltzeko:

- Espezie baten barruan dauden indibiduen barietatea.
- Izaki bizidunen komunitate batean dauden espezieen barietatea.
- Inguru batean dauden ekosistemen barietatea.
- Aurreko erantzun guztiak.

Naturako komunitate batzuek besteek baino espezie gehiago dituzte. Baina denak dira oso beharrezkoak eta garrantzitsuak.

2- Zein arrazoiengatik da horren garrantzitsua, zure ustez, biodibertsitatea mantentzea?

3- Animalia kaltegarriak deitzen ditugunak, adibidez, egurreko sitsa, guk uste bezain kaltegarriak al dira?

Lurraren historian zehar espezie batzuk desagertu egin dira. Bizitzaren historian zehar ohikoa izan da eta da espezie batzuek egoera berrietara hobeto egokituta dauden beste batzuei lekua uztea. Hala ere, -eta hemen hartzen du parte gizakiak- hain naturala ez dena zera da, zeinen azkar desagertzen ari diren espezie asko gizakion jarduerengatik.

4- Espezieak desagertzea bizitzaren legea dela uste al duzu, ala saihestu daiteke hori? Arrazoitu ezazu zure erantzuna.

5- Zerk uste duzu eragiten duela espezieak desagertzea?

6- Zer gertatuko litzateke animalia eta landare espezie asko desagertuko balira?

BIODIBERTSITATEA

Beti desagertu dira espezieak eta beste batzuk agertu, baina gizakia hain abiadura handian ari da espezieak desagertarazten, non ez baitu denborarik ematen horien lekua hartuko duten espezieak sortzeko.

Giza espezieak beste bat deuseztatzeko duen moduetako bat heriotza eragitea edo zuzenean deuseztatzea da, biozida eta arrantzaren bidez.

Babestutako guneetan ekosistemen eta espezieen aniztasuna mantentzen saiatzen dira, baita espezie bereko banakoen aniztasuna ere.

7- Ezagutzen al duzu babestutako gunerik? Zeintzuk?

8- Babestutako gune horiek nola lagunduko dute bertan bizi diren espezieak mantentzen?

Animalia eta landare guztiak dira beharrezkoak, baina batzuk arriskutsuak dira. Askotan kanpokoak diren animalia eta landare espezieak erosten ditugu oso politak direlako, eta haiek arriskutsu bihur daitezke.

9- Ezagutzen al duzu horrelako espezierik? Zeintzuk?

10- Zergatik dira arriskutsuak?

Arriskutsuak diren espezie hauei inbaditzaileak deritzo. Mugarik gabe ugaltzen dira bertako espezieak arriskuan jarriz.

11- Ba al dakizu espezie hauen aurkako ekintzarik egiten ari diren zure herrian?

12- Zer ari dira egiten? Horren berri eman zure ikaskideei.

Biodibertsitatea gure bizitzaren oinarria da. Zaindu behar dugu.

13- Zuk zer egin dezakezu biodibertsitatea mantentzen laguntzeko?

14- Jadanik biodibertsitatearen aldeko zenbait jokaera beteko duzu, zein eta zergatik? Hemendik aurrera ondoren ematen dizkizugun hauekoren bat praktikan jar al zenezake, edo, zure ingurukoak horretara bultzatu?

- Birziklatu ahal duzun guztia.
- Ura eta energia aurreztu.
- Ez erosi animalia basati edo biziekin egindako oroigarrik.
- Landare eta animaliak errespetatu itzazu.
- Ez jan arrainkumerik.